BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1494

EBAZPENA, 2017ko martxoaren 9koa, Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Global Lehian programaren diru-laguntzak emateko deialdia, 2017ko ekitaldirako. Programa horren helburua da banaka nahiz lankidetzan jarduten duten ETEak nazioartekotzen laguntzea.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko martxoaren 19ko Aginduaren bidez (2014ko apirilaren 1eko EHAA, 63. zk.), banaka nahiz lankidetzan jarduten duten ETEak nazioartekotzen laguntzeko Global Lehian programa garatzen da. Aipatutako aginduaren 8. artikuluan ezarritakoarekin bat, han iragarritako diru-laguntzak emateko 2017ko ekitaldirako deialdia egin behar da, eta horretarako eman beharreko arau guztiak eman.

Enpresen 2014-2016 Nazioartekotze Plana Eusko Jaurlaritzaren oinarrizko tresna gisa definitu da euskal enpresen nazioartekotzeari laguntzeko eta horretarako planifikazioa egiteko, egungo globalizazio-egoeraren barruan. Plan horretan, enpresei laguntzeko behar diren mekanismoak daude, eta finantza-iturri egokiak ematen zaizkie baliabide publikoen erabilera eraginkorraren bidez.

Halaber, 2014-2016 Nazioartekotze Planak esku-hartze lerro orokorrak ezarriko ditu, eta, era horretan, bete egin da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa. Horretarako, laguntza-prometan zehaztu beharko da zer helburu eta efektu lortu nahi den programa horien bidez, zein izango den helburu horiek gauzatzeko epea eta zenbateko kostuak aurreikusten diren, aurrekontu-egonkortasuna oinarri hartuta, betiere.

Gaur egun, enpresetarako nazioartekotze-plan berri bat definitzeko behar den hausnarketa ari da egiten, gure programak eta gure enpresen beharrak uztartzeko, nazioartekotze aldera.

Agindu arautzaile horren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, diru-laguntzetarako deialdia urtero egin behar da.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Global Lehian programa garatzen duen aginduan ezarritako laguntzetarako 2017ko deialdia egitea. Programa horrek helburu du banaka nahiz lankidetzan jarduten duten ETEak nazioartekotzen laguntzea.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

Deialdiko laguntza horietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko 2016ko ekitaldirako aurrekontu orokorretan (2017ko ekitaldirako luzatuak) horretarako ezarrita dauden aurrekontu-kredituen arabera, eta kontuan hartuta 2016. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2015 Legea, Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren IX. tituluari lotuta (dekretu horren bidez, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen da, eta, bestetik,

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatuko zaien aurrekontu-erregimena arautzen da), kopuru hauek bideratuko dira:

1.– Guztira 5.520.000,00 euro, honela banatuta: ordainketa-krediturako 1.380.000,00 euro eta konpromiso-krediturako 4.140.000,00 euro.

Etapa bakoitzera, zenbateko hauek bideratuko dira:

• Hasierako etapa: 828.000,00 euro.

• Sendotze-etapa: 3.864.000,00 euro.

• Ezartze-etapa: 828.000,00 euro.

2.– Hiru etapa horietakoren batean aurrekontu-kreditua agortzen ez bada, soberakina beste etapetara aldatu ahal izango da, hurrenkera honi jarraituz:

1.– Hasierako etapa.

2.– Sendotze-etapa.

3.– Ezartze-etapa.

3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko lekua eta modua.

Eskabidea eta harekin batera aurkeztu beharreko beste edozein agiri era telematikoan bete beharko da, eta honako helbide elektroniko hauetan horretarako ezarritako atalean aurkeztuko da:

http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/es/

http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/

Espedientera sartzeko eta gainerako izapideak egiteko, helbide hau ere erabili ahal izango da:

http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/acceso_teletramitacion/es_def/nb29WebProfesional.html?idioma=eu&seccion=AF&servicio=I

http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/acceso_teletramitacion/es_def/nb29WebProfesional.html?idioma=es&seccion=AF&servicio=I

Eskabide-eredua ebazpen honen I. eranskinean dago argitaratuta.

4. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 9:00etan; amaitu, berriz, 2017ko apirilaren 26ko 12:00etan amaituko da.

Hasierako etapan, eta nazioartekotze-plana prestatzeko laguntzak eskatu nahi izanez gero, 2017ko maiatzaren 31ko 12:00etan amaituko da aurkezteko epea.

5. artikulua.– Eskakizunak.

Global Lehian Programa garatzen duen aginduan ezarritako laguntzak jasotzeko, eta agindu horren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, proiektu bakoitzak gutxieneko puntuazio hau lortu beharko du etapa bakoitzean:

– Hasierako etapa: 35 puntu.

– Sendotze-etapa: 50 puntu.

– Ezartze-etapa: 40 puntu.

6. artikulua.– Balorazio-irizpideen haztapen orokorra.

Global Lehian programa garatzen duen Aginduaren 12. artikuluan aipatzen diren balorazio-irizpideak haztatzeko, ebazpen honetako 2.a eranskinean (banakako enpresak), 2.b eranskinean (lankidetzan aritzen diren enpresak) eta 3. eranskinean zehaztutakoa aplikatuko da.

7. artikulua.– Bidaia-poltsak, eta bezero eta/edo atzerriko hornitzaile izan daitezkeenei gonbidapena egitea.

1.– Bidaia-poltsak:

Global Lehian Programa garatzen duen Aginduan aipatzen diren bidaia-poltsak ebazpen honetako 4. eranskinean daude zehaztuta. Gehienez, bidaia-poltsa kopuru hau onartuko da:

– Hasierako etapa: 7 bidaia-poltsa, aurkeztutako eskabide bakoitzeko.

– Sendotze-etapa: 5 bidaia-poltsa herrialdeko, eta, gehienez, 3 herrialde aurkeztutako eskabide bakoitzeko.

– Ezartze-etapa: 7 bidaia-poltsa, enpresa nagusiaren eta ezarritako enpresaren artean aurkeztutako eskabide bakoitzeko; deialdi honetan, enpresa nagusia edo ezarritako enpresa kokatuta dauden herrialdeak baino ez dira onartuko jatorri-herrialdetzat edo xede-herrialdetzat.

Atzerriko azoketan erakustokiak jarri eta produktuak aurkeztuz gero, bidaia-poltsak ez dira zenbatuko, atal honetan ezarritako gehieneko poltsa-kopuruaren ondorioetarako.

2.– Bezero eta/edo atzerriko hornitzaile izan daitezkeenei gonbidapena egitea.

Sendotze-etapan, gehienez 9 gonbidapen egin ahal izango dira eskabide bakoitzeko, betiere hilabete desberdinetan egiten badira.

Gonbidapen bakoitzeko, ostatu- eta garraio-gastuen muga 600,00 eurokoa izango da, aginduaren 4. artikuluan zehazten denari jarraituz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskabideak aztertu eta abaluatzeko, ebaluazio-organo bat eratuko da, Agustín Arostegi presidente izango duena. Presidentearen ordezko, Iñaki Ezkurrak jardungo du.

Lehendakaria: Iker Arruabarrena. Ordezkoa. Agustín Aróstegui.

Kideak:

Isabel Rodríguez. Ordezkoa. José David Garcia.

Gonzalo Martínez. Ordezkoa: Nekane Torre.

Amaia Aramburu. Ordezkoa: Alexander Armentia.

Ebaluazio-organoko idazkaria Isabel Rodriguez izango da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 9a.

Industriako sailburuordea,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.

☐ Balidatua

Balidatu

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
Nazioartekotze Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS
Dirección de Internacionalización

LAGUNTZA-PROGRAMA GLOBAL LEHIAN 2017

ESKATZAILEA

ORDEZKARIA

Izena:

Aurreneko abizena:

Bigarren abizena:

IFZ:

TITULARRA

Sozietatearen izena: **IFZ:**

EZARPENAK

1. EZARPEN-DATUAK

Ezarpenaren izena:

Helbidea:

Hiria: Herrialdea:

Tlfna: E-maila:

Ezarpen-data:(Adierazi 2016eko urtarrilaren 1etik 2016eko abenduaren 31 arteko data bat):

2. EZARPENAREN DESKRIBAPENA

☐ Merkataritza ☐ Ekoizpena ☐ Zerbitzuak

3. MATRIZEAK EZARPENEAN DAUKAN PARTE-HARTZEAREN %:

4. PERTSONA-KOPURUA ETA EZARPENEAN DAUZKATEN ZEREGINAK:

5. EZARPENAREN FORMA JURIDIKOA:

6. AURREIKUSITAKO EDO GAUZATUTAKO INBERTSIOA, GUZTIRA:

7. AURREKO URTEETAN GLOBAL LEHIAN PROGRAMAREN BARRUAN DIRU-LAGUNTZAK JASO DITUZTEN BESTE EZARPEN BATZUK:
(Adierazi ezarpen bakoitzaren herrialdea eta urtea)

SALMENTA- ETA SUSTAPEN-TALDEAK

Sustapen-taldearen izena:

Proiektua garatzeko herrialdeak

1. Herrialdea:
2. Herrialdea:
3. Herrialdea:
4. Herrialdea:
5. Herrialdea:

Ba al dago loturarik enpresa parte-hartzaileen artean? ○ Bai ○ Ez

Baiezkoaren kasuan, adierazi zer lotura dagoen:

Salmenta- eta sustapen-taldea martxan jartzeko data:

Salmenta- eta sustapen-taldearen forma juridikoa, izanez gero:

Enpresa parte-hartzaileen arteko merkataritza-sinergiak:

Oharrak:

PARTZUERGOA

Helburuko partzuergoa izanez gero:

Esportazio-partzuergoaren izena: _____

Partzuergoaren IFZ: _____

Helbide soziala:

Herrialdea: _____ Hiria: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

E-maila: _____

URL: _____

Partzuergoko kudeatzailea:

Izena: _____

Aurreneko abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Enpresa parte-hartzaileen kopurua: _____

Proiektua garatzeko herrialdeak

1. Herrialdea: _____
2. Herrialdea: _____
3. Herrialdea: _____
4. Herrialdea: _____
5. Herrialdea: _____

Ba al dago loturarik enpresa parte-hartzaileen artean? ◯ Bai ◯ Ez

Baiezkoaren kasuan, adierazi zer lotura dagoen:

_____

Esportazio-partzuergoa eratzeko data: _____

Esportazio-partzuergoaren forma juridikoa: _____

Enpresa parte-hartzaileen arteko merkataritza-sinergiak:

_____

Oharrak:

BALORAZIOA

Bezeroak (helburuko sektoreak) edo azken erabiltzaileak:

Izena	Nagusia	Bigarrengoa	Bat ere ez
Lehen sektorea eta erauzketa-sektorea	○	○	○
Nekazaritzako elikagaien industria	○	○	○
Eraikuntza	○	○	○
Ura, elektrizitatea	○	○	○
Metalaren industria	○	○	○
Zuraren industria	○	○	○
Ekipo-makineriaren fabrikatzaileak	○	○	○
Komunikazioa, IKTak	○	○	○
Ehungintza	○	○	○
Kimika, papera	○	○	○
Ostalaritza	○	○	○
Sektore klinikoa, sanitarioa	○	○	○
Industria-hornigaien handizkariak eta txikizkariak	○	○	○
Bestelako handizkariak eta txikizkariak	○	○	○
Administrazioa	○	○	○
Beste batzuk	○	○	○

Produkzio edo merkataritza establezimenduak:

	Izena	Hiria	Herrialdea	Part. %	Urtea

Errenkada ezabatu | Errenkada Gehitu

Partzuergoaren edo salmenta eta sustapeneko taldearen partaide diren enpresen batez bestekoa.

	2015	2016
Urteko balantze orokorra (milaka eurotan)		
Urteko negozio-bolumena (milaka eurotan)		

Esportazio-bolumena, milaka eurotan, herrialdeka. Ez multzokatu herrialdeak **(2. irizpidea)**:
(*Oharra: *Adierazi partzuergoaren edo salmenta eta sustapeneko taldearen partaide diren enpresen batez bestekoa*)

	HERRIALDEA	BALIOA 2015 (milaka eurotan)	BALIOA 2016 (milaka eurotan)	GUZTIRA

Errenkada ezabatu | Errenkada Gehitu

(***Oharra:** *Adierazi partzuergoaren edo salmenta eta sustapeneko taldearen partaide diren enpresen batez bestekoa*)

	2015	2016
ESPORTAZIOAK, GUZTIRA		
ESTATUKO SALMENTAK, GUZTIRA		
SALMENTAK, GUZTIRA		

Enpresa eskatzaileko enpleguaren bilakaera, guztira **(3. eta 4. irizpideak)**:

(***Oharra:** *Adierazi partzuergoaren edo salmenta eta sustapeneko taldearen partaide diren enpresen batez bestekoa*)

	2015	2016
Gizonak		
Emakumeak		
Guztira		

Lankidetza **(5. irizpidea):**
(***Oharra**: *Hori egiaztatzen duen dokumentua eskaera egiterakoan eranstea nahitaezkoa da*).
Lankidetza (enpresa) **(5. irizpidea):**
(***Oharra**: *Hori egiaztatzen duen dokumentua eskaera egiterakoan eranstea nahitaezkoa da*).

	BAI	EZ
Esportazio Partzuergo bateko partaidea da	○	○
Salmenta-talde bateko partaidea da	○	○
EAEn dagoen kluster edo elkarte sektorial bateko kide da	○	○

Dibertsifikazio geografikoa **(6. irizpidea):**

	2015	2016
Xede-merkatuen kopurua		

Nazioartekotzeko prestakuntza-programetako lankidetza (enpresa) **(7. irizpidea):**
(***Oharra**: *Hori egiaztatzen duen dokumentua eskaera egiterakoan eranstea nahitaezkoa da*).
Nazioartekotzeko prestakuntza-programeekin lankidetza (Gutxienez partzuergoaren edo taldearen partaide diren empresa batek:) **(7. irizpidea)**:
(***Oharra**: *Hori egiaztatzen duen dokumentua eskaera egiterakoan eranstea nahitaezkoa da*).

	BAI	EZ
Nazioartekotze Zuzendaritzako bekadun bat hartu du 2016ean edo 2017an	○	○
Nazioartekotzea sustatzeko beste agentzia batzuetako bekadun bat hartu du 2016an, edo 2017an hartuko du	○	○
Nazioartekotze Zuzendaritzako bekadun bat kontratatu du 2016ean edo 2017an	○	○
Nazioartekotzea sustatzeko beste agentzia batzuetako bekadun ohi bat kontratatu du 2016an edo 2017an	○	○

Erantzukizun sozial korporatiboa: enpresak plan hauek dauzka **(8. irizpidea):**
(***Oharra**: *Hori egiaztatzen duen dokumentua eskaera egiterakoan eranstea nahitaezkoa da*).
Erantzukizun sozial korporatiboa: Gutxienez partzuergoaren edo taldearen partaide diren empresa batek plan hauek dauzka **(8. irizpidea)**:
(***Oharra**: *Hori egiaztatzen duen dokumentua eskaera egiterakoan eranstea nahitaezkoa da*).

Euskara-plana	☐
Genero-berdintasunaren plana	☐
Ingurumen-ziurtagiria	☐
Erantzukizun sozial korporatiboko beste plan edo ziurtagiriren bat	☐

TITULARRAREN BAIMENA

○ BAIMENA EMATEN DIOT deialdi honen organo kudeatzaileari zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan eskudun diren organoei betebeharrak betetzen egunean egotearen ziurtagiria emateko zuzenean eskatzeko.

○ EZ DIOT BAIMENIK EMATEN deialdi honen organo kudeatzaileari zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan eskudun diren organoei betebeharrak betetzen egunean egotearen ziurtagiria emateko zuzenean eskatzeko.

Baimenik ematen ez bada, zergei lotutako betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzearen ziurtagiria aurkeztu beharko da eskatzen zaizun bakoitzean.

Abenduaren 13 15/1999 Lege Organikoaren (Datu Pertsonalak Babesteko Legea) 5. artikulua betez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak jakinarazten dizu ematen dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla, administrazioari dagozkion eginkizunak eta eskumenak betetzeko. Nahi baduzu, Legean aurreikusitako eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara idatziz joz, helbide honetara: Donostia-San Sebastián Kalea, 1-01010 Vitoria-Gasteiz.

PARTE-HARTZAILEAK

Enpresa/Erakundea _____

Enpresaren IFZ: _____

Helbide soziala:

Lurralde Historikoa/ Probintzia: _____

Udalerri: _____

Herria: _____

PK: _____

Helbidea: _____

Tel.: _____

E-maila: _____

URL: _____

Legezko ordezkaria: legal:

Izena: _____

Aurreneko abizena: _____

Bigarren abizena: _____

IFZ: _____ Sexua : ◯ Gizona ◯ Emakumea

Harremanetarako pertsona

Izena: _____

Aurreneko abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Tel.: _____

E-maila: _____

Parte hartzen duen enpresa bakoitzaren datuak:
(***Oharra:***_Nahitaez bete beharrekoa._)

	2015	2016
Urteko balantze orokorra (milaka eurotan)		
Urteko negozio-bolumena (milaka eurotan)		
Enplegatu-kopurua		

Proiektuaren datuak:

Parte hartzearen ehunekoa: _____

Sartzeko data: _____

Ba al dago loturarik enpresa parte-hartzaileen artean? ◯ Bai ◯ Ez

Baiezkoaren kasuan, adierazi zer lotura dagoen:

_____

◯ Partzuergoa ◯ edo taldea jartzeko data: _____

Partzuergoaren edo taldearen forma juridikoa: _____

Enpresa parte-hartzaileen arteko merkataritza-sinergiak:

_____

PARTE-HARTZAILEAREN BAIMENA

◯ BAIMENA EMATEN DIOT deialdi honen organo kudeatzaileari zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan eskudun diren organoei betebeharrak betetzen egunean egotearen ziurtagiria emateko zuzenean eskatzeko.

◯ EZ DIOT BAIMENIK EMATEN deialdi honen organo kudeatzaileari zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan eskudun diren organoei betebeharrak betetzen egunean egotearen ziurtagiria emateko zuzenean eskatzeko.

Baimenik ematen ez bada, zergei lotutako betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzearen ziurtagiria aurkeztu beharko da eskatzen zaizun bakoitzean.

Parte-hartzailea ezabatu | Parte-hartzailea gehitu

Laburpena:

Eskaera egiten edo parte hartzen duen enpresa	IFZ	Partaidetzaren %	Ogasun ziurtagiri baimena
			☒

Abenduaren 13 15/1999 Lege Organikoaren (Datu Pertsonalak Babesteko Legea) 5. artikulua betez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak jakinarazten dizu ematen dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla, administrazioari dagozkion eginkizunak eta eskumenak betetzeko. Nahi baduzu, Legean aurreikusitako eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara idatziz joz, helbide honetara: Donostia-San Sebastián Kalea, 1-01010 Vitoria-Gasteiz.

GASTUAK

OHAR GARRANTZITSUA:
Gastu mota bakoitzean, gehienezko zenbatekoa gaindituz gero, aurkezpen-ordena jarraituz lehenetsiko dira gastuak.

NAZIOARTEKOTZE PLANA PRESTATZEA

Jardueraren izena: _____

Planaren indarraldia: _____

Aholkularitza eskatuko zaion enpresa

Izena: _____

Helbidea: _____ Herrialdea: _____

Tel.: _____

E-maila: _____

Gastuen aurrekontua, BEZik gabe: _____

Plana ezabatu | Plana gehitu

BIDAIAK

Ekintza: _____

Bidaiaren hasiera-data _____ Bidaiaren amaiera-data _____

Herrialdea: _____

Eskatutako kontzeptuaren araberako diru-laguntza jasotzen du edo misioren batean hartzen du parte merkataritza ganberekin, sektoreko elkarteekin, etab.

○ Bai ○ Ez

Baiezkoaren kasuan, adierazi zein:

	Eskaera-urtea	Erakundea	Eskatutako kontzeptua	Eskatutako zenbatekoa	Emandako laguntza

Gastuen aurrekontua, BEZik gabe: _____

Bidaia ezabatu | Bidaia gehitu

AGENDAK PRESTATZEA

Jardueraren izena: _____

Herrialdea: [ ]

Agenda egiten duen enpresa

Izena: _____

Herrialdea:: [ ] Helbidea: _____

Tel: _____

E-maila: _____

Jardueraren deskribapen laburra (helburuak eta ezaugarriak):

[ ]

Gastuen aurrekontua: _____

Elaborazioa ezabatu | Elaborazioa gehitu

EZARPENAREN BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA

Jardueraren izena: _____

Herrialdea: [ ]

Bideragarritasun-azterketa egiten duen enpresa:

Izena: _____

Herrialdea: [ ] Helbidea: _____

Telefonoa: _____

E-maila: _____

Jardueraren deskribapen laburra (helburuak eta ezaugarriak):

[ ]

Gastuen aurrekontua: _____

Ikerketa ezabatu | Ikerketa gehitu

ERAKETA-GASTUAK

Jardueraren izena: _____

Datak: _____

Gastuen aurrekontua: _____

Eraketa ezabatu | Eraketa gehitu

BEZERO/BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN ATZERRITARRAK GONBIDATZEA

Jarduera: _____

Herrialdea: _____

Gonbidapenaren hasierako data: _____ Gonbidapenaren amaierako data: _____

Gastuen aurrekontua: Egun-kopurua: _____ Zenbatekoa: _____

Gonbidapena ezabatu | Gonbidapena gehitu

AZOKAK ATZERRIAN

Azokaren izena: _____

Herrialdea: _____

Azokaren hasiera-data: _____ Azokaren amaiera-data: _____

		Gastuen aurrekontua	Beste erakunde batzuetatik jasotako laguntzaren zenbatekoa
	Joan-etorriak		
	Stand-aren alokairua		
	Dekorazioa		
	GUZTIRA		

Azokak ezabatu | Azokak gehitu

SUSTAPENEKO MATERIALA

Sustapeneko materiala: _____

Hizkuntzak: _____

Jardueraren deskribapen laburra (helburuak eta ezaugarriak):

Gastuen aurrekontua: _____

Materialak ezabatu | Materialak gehitu

PUBLIZITATEA ATZERRIAN

Jardueraren izena: _____

Herrialdea: _____

Baliabidea (aldizkaria, egunkaria, telebista, irratia etab.): _____

Jardueraren deskribapen laburra (helburuak eta ezaugarriak):

Gastuen aurrekontua: _____

Iragarkia ezabatu | Iragarkia gehitu

FUNTZIONAMENDUA

Jardueraren izena: _____

Datak: _____

		Gastuen aurrekontua
	Alokairuak	

	Bulego-ekipamendua	
	Zerbitzu profesionalak	
	Beste batzuk	
	GUZTIRA	

Funtzionamendua ezabatu | Funtzionamendua gehitu

EGITURA

Jardueraren izena: _____

Datak: _____

		Gastuen aurrekontua
	Alokairuak	
	Bulego-ekipamendua	
	Zerbitzu profesionalak	
	Beste batzuk	
	GUZTIRA	

Ezabatu egitura | Gehitu egitura

BESTELAKO EKINTZAK

Jardueraren izena: _____

Herrialdea: _____

Jardueraren helburuak adierazi:

Gastuen aurrekontua: _____

Beste ekintza batzuk ezabatu | Beste ekintza batzuk gehitu

PERTSONA BAT KONTRATATZEAK ERAGINDAKO GASTUAK

Kontratatutako pertsonaren izena: _____

Kontratatutako pertsonaren Aurreneko abizena: _____

Kontratatutako pertsonaren bigarren abizena: _____

Kontratazio-data: _____

Kontratatutako pertsonaren titulazioa: _____

Kontratatutako pertsonak betetzen duen postua: _____

Deialdiari dagokion ekitaldirako aurreikusi den soldaten kostua: _____

Gastuak ezabatu | Gastuak gehitu

PERTSONA BAT KONTRATATZEKO HAUTAKETA-GASTUAK

Hautaketa egiten duen kanpoko erakundearen izena: _____

Hautaketa-gastuak: _____

Gastuak ezabatu | Gastuak gehitu

GASTUEN LABURPENA

Zk.	MOTA	IZENA	GASTUAK

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- ☐ Esportazio Partzuergoaren kide dela adierazten duen dokumentazioa
- ☐ Salmenta- eta sustapen-talde baten kide dela adierazten duen dokumentazioa
- ☐ EAEn dagoen kluster bateko edo elkarte sektorial bateko kide dela egiaztatzen duen dokumentazioa
- ☐ Euskara plana
- ☐ Berdintasun plana
- ☐ Ingurumen ziurtagiria
- ☐ Erantzukizun sozial korporatiboko ziurtagiriak
- ☐ Enpresaren langile-bizitza
- ☐ Beka emateko ebazpena
- ☐ Bekadunaren eta enpresaren arteko akordioa edo lankidetza-hitzarmena
- ☐ Graduondokoa egin izanaren Merkataritza Ganberaren ziurtagiria

2-a ERANSKINA
AURKEZTUTAKO PROIEKTUA BALORATZEKO IRIZPIDEAK ETA HAZTATZEKO FAKTOREAK – Banakako enpresak

IRIZPIDEA	HAZTAPENA
1. irizpidea: Nazioartekotze-planaren kalitatea	**35 puntu**
Aintzat hartuko dira 3. eranskineko balorazio-irizpideak eta haztatze-faktoreak	
2. irizpidea: merkatu berrietan izandako fakturazioa edo salmentak	**8 puntu**
% 25 edo gutxiago	6
% 25 baino gehiago	8
3. irizpidea: Nolako inpaktua izango duen EAEko ekonomian eta enpleguan **Langile kopurua:**	**12 puntu**
Murrizketa	0
Sendotzea edo % 5eko edo hortik beherako gehikuntza	6
% 5etik gorako gehikuntza	12
4. irizpidea: Enpresaren tamaina **Langile kopurua:**	**14 puntu**
250 edo gehiago	0
100 baino gehiago eta 250 baino gutxiago	2
50 baino gehiago eta 100 edo gutxiago	5
10 baino gehiago eta 50 edo gutxiago	8
5 baino gehiago eta 10 edo gutxiago	11
0 baino gehiago eta 5 edo gutxiago	14
5. irizpidea: Lankidetza	**12 puntu**
Kluster bateko edo elkarte sektorial bateko kide da	6
Salmenta- eta sustapen-talde batean parte hartzea	10
Esportazio-partzuergo batean parte hartzea	12
6. irizpidea: Dibertsifikazio geografikoa **Azken bi urteetan xede izan dituen merkatu-kopurua:**	**12 puntu**
Eutsi dio edo behera egin du	0
% 10etik behera igo da	4
% 10 edo hortik gora eta % 25etik behera igo da	8
% 25 edo hortik gora igo da	12
7. irizpidea: BEINT bekadunak edo antzekoak	**5 puntu**
Ez dauka bekadunik, eta ez du bekadun izandakorik kontratatu	0
Bekadunak hartu ditu 2016ean, edo 2017an hartuko ditu	3
Bekadun ohiak kontratatu ditu 2016an edo 2017an	5
8. irizpidea: Enpresen gizarte-erantzukizuna	**2 puntu**
Planik ez	0
Plan bat	1
Bi plan edo gehiago	2

2-b ERANSKINA
AURKEZTUTAKO PROIEKTUA BALORATZEKO IRIZPIDEAK ETA HAZTATZEKO FAKTOREAK –
Lankidetzan aritzen diren enpresak

IRIZPIDEA	HAZTAPENA
1. irizpidea: Nazioartekotze-planaren kalitatea	**35 puntu**
Aintzat hartuko dira 3. eranskineko balorazio-irizpideak eta haztatze-faktoreak	
2. irizpidea: elkarteetan/partzuergoetan bildutako enpresek merkatu berrietan duten fakturazioaren batez bestekoa	**8 puntu**
% 25 edo gutxiago	6
% 25 baino gehiago	8
3. irizpidea: Nolako inpaktua izango duen EAEko ekonomian eta enpleguan Langile kopurua. Elkarteetan/partzuergoetan bildutako enpresen batez bestekoa:	**12 puntu**
Murrizketa	0
Sendotzea edo % 5eko edo hortik beherako gehikuntza	6
% 5etik gorako gehikuntza	12
4. irizpidea: Enpresaren tamaina Langile kopurua. Elkarteetan/partzuergoetan bildutako enpresen batez bestekoa:	**14 puntu**
250 edo gehiago	0
100 baino gehiago eta 250 baino gutxiago	2
50 baino gehiago eta 100 edo gutxiago	5
10 baino gehiago eta 50 edo gutxiago	8
5 baino gehiago eta 10 edo gutxiago	11
0 baino gehiago eta 5 edo gutxiago	14
5. irizpidea: Lankidetza	**12 puntu**
Salmenta- eta sustapen-taldea	10
Esportazio-partzuergoa	12
6. irizpidea: Dibertsifikazio geografikoa Azken bi urteetan xede izan dituen merkatu-kopurua. Elkartearen / partzuergoaren batez bestekoa:	**12 puntu**
Eutsi dio edo behera egin du	0
% 10etik behera igo da	4
% 10 edo hortik gora eta % 25etik behera igo da	8
% 25 edo hortik gora igo da	12
7. irizpidea: BEINT bekadunak edo antzekoak	**5 puntu**
Ez dauka bekadunik, eta ez du bekadun izandakorik kontratatu	0
Bekadunak hartu ditu 2016ean, edo 2017an hartuko ditu	3
Bekadun ohiak kontratatu ditu 2016an edo 2017an	5
8. irizpidea: Enpresen gizarte-erantzukizuna	**2 puntu**
Planik ez	0
Plan bat	1
Bi plan edo gehiago	2

3. ERANSKINA
NAZIOARTEKOTZE-PLANA BALORATZEKO IRIZPIDEAK ETA HAZTATZEKO FAKTOREAK

	Gaia	Arloa	Haztapena
1	Estrategiari buruzko barne-analisia	Negozio-unitateen gaineko gogoeta	% 10
2		Lehiakideei buruzko azterketa	% 5
3		Negozio-unitatearen balio-eskaintza	% 5
4		Lehiatzeko abantailak	% 10
5	Merkatuari buruzko azterketa estrategikoa	Merkatuan sartzeko bideei buruzko azterketa	% 10
6		Merkatuei/herrialdeei buruzko azterketa	% 10
7		Nazioartekotzeko estrategia	% 10
8		Merkatuaren segmentazioari buruzko azterketa	% 10
9	Plangintza	Salmenta-proiekzioak	% 5
10		Plangintza	% 10
	Orokorra	Planaren koherentzia	% 15

IV. ERANSKINA
BIDAIA-POLTSAK

Herrialdea	**Zenbatekoa (€)**
Albania	1.450
Alemania	1.094
Angola	2.537
Saudi Arabia	2.042
Aljeria	930
Argentina	2.574
Armenia	2.079
Australia	2.574
Austria	1.220
Azerbaijan	2.079
Bangladesh	2.358
Belgika	1.062
Bielorrusia	1.861
Bolivia	2.502
Bosnia-Herzegovina	1.156
Botswana	2.804
Brasil	2.358
Brunei	2.960
Bulgaria	1.420
Kamerun	2.164
Kanada	2.164
Kolonbia	2.164
Kongoko Errepublika	2.358
Hego Korea	2.804
Boli Kosta	1.934
Costa Rica	2.128
Kroazia	1.156
Kuba	1.934
Txad	2.006
Txile	2.804
Txina	2.804
Zipre	1.420
Danimarka	1.126
Ekuador	2.321
Egipto	1.388
El Salvador	2.164
Arabiar Emirerri Batuak	2.199
Eslovakia	1.156
Eslovenia	1.094
Estatu Batuak	1.898

Herrialdea	Zenbatekoa (€)
Estonia	1.861
Etiopia	2.128
Filipinak	2.889
Finlandia	1.262
Frantzia	994
Gabon	2.284
Georgia	2.079
Ghana	1.971
Grezia	1.220
Guatemala	2.164
Guinea	1.898
Ekuatore Ginea	2.042
Guinea-Bissau	1.753
Honduras	2.236
Hungaria	1.294
India	2.358
Indonesia	2.889
Iran	2.199
Irak	1.898
Irlanda	1.094
Islandia	1.826
Israel	1.450
Italia	1.062
Jamaika	2.199
Japonia	2.804
Jordania	1.450
Kazakhstan	2.358
Kenya	2.164
Kirgizistan	2.358
Kuwait	2.006
Letonia	1.861
Libano	1.450
Liberia	1.934
Libia	1.450
Lituania	1.861
Luxenburgo	1.094
Madagaskar	2.889
Malaysia	2.804
Malawi	2.889
Mali	1.789
Maroko	930
Mauritania	1.633
Mexiko	2.128

Herrialdea	Zenbatekoa (€)
Moldavia	2.079
Mongolia	2.889
Montenegro	1.188
Namibia	2.502
Nepal	2.358
Nikaragua	2.284
Nigeria	1.898
Norvegia	1.188
Zeelanda Berria	2.574
Oman	2.321
Herbehereak	1.062
Pakistan	2.128
Panama	2.236
Paraguay	2.574
Peru	2.502
Polonia	1.220
Portugal	832
Puerto Rico	2.006
Erresuma Batua	1.094
Afrika Erdiko Errepublika	2.284
Txekiar Errepublika	1.262
Kongoko Errepublika Demokratikoa	2.284
Dominikar Errep.	2.006
Errumania	1.356
Errusia	1.861
Senegal	1.450
Serbia	1.188
Singapur	2.696
Siria	1.450
Somalia	2.502
Sri Lanka	2.358
Hegoafrika	2.199
Suedia	1.188
Suitza	1.062
Thailandia	2.659
Taiwan	2.889
Tunisia	962
Turkmenistan	2.358
Turkia	1.388
Ukraina	1.861
Uruguai	2.574
Uzbekistan	2.358
Venezuela	2.164

Herrialdea	Zenbatekoa (€)
Vietnam	2.889
Yemen	2.164
Zambia	2.841
Zimbabwe	2.841

☐ Balidatua

Balidatu

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
Nazioartekotze Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS
Dirección de Internacionalización

GLOBAL LEHIAN LAGUNTZA-PROGRAMA
Erantzukizunpeko adierazpena

ESKATZAILEA

TITULARRA

Sozietatearen izena: _____ **IFZ:** _____

ORDEZKARIA

Izena: _____ **IFZ:** _____

Aurreneko abizena: _____ **Bigarren abizena:** _____

AITORPENAK

1. Enpresaren tamaina zehazteko, datu hauek aitortzen dira:

☐ Enpresak beste enpresaren batean/batzuetan parte hartzen du, edo beste enpresaren baten/batzuen partaidetza dauka.

☐ Kontuak bateratuta daude.

-Honako hauek dira enpresa eskatzailearen eta enpresa horrek parte hartzen duen edo partaidetzat dituen beste enpresen enplegu-datuak, negozio-bolumena eta balantzea:

Enpresa eskatzailearen eta harekin lotura duten enpresen izenak	Lotura-mota	Langile-kopurua	Negozio-bolumena	Urteko balantze orokorra
GUZTIRA:				

Ezabatu Errenkada gehitu

Eskatutako datu horiek zehazteko, delako enpresari buruz bere kontuetan oinarrituta edo, egonez gero, kontu bateratuetan oinarrituta eskuratutako datuei beste datu hauek erantsi beharko zaizkie: kapitalean edo boto-eskubideetan duten partehartzearen ehunekoaren proportzioan aurretik edo atzetik dituen lehenengo enpresa elkartu posibleen datuak (proportzio altuenak dituztenenak). Gainera, delako enpresari zuzenean edo zeharka lotuta egon daitezkeen eta bateratzearengatik kontuetan sartu ez diren enpresen datuen % 100 erantsiko da.

Horrez gain, delako enpresarekin elkartutako enpresak beste enpresa batzuei lotuta baldin badaude, enpresa elkartu horiei lotutako enpresen datuen 100 % erantsi beharko da. Era berean, delako enpresari lotutako enpresak beste enpresa batzuekin elkartuta badaude, lotutako enpresekin elkartutako enpresen datu proportzionalak erantsiko dira (Batzordearen gomendioa, 2003ko maiatzaren 6koa. EBAO, L 124, 2003ko maiatzaren 20koa).

2. Lankidetzan (sustapen- eta salmenta-taldeekin eta esportazio-partzuergoekin) egindako kanpo-sustapeneko jardueren kasuan, parte hartzen duten enpresak independenteak dira eta ez daude bata besteari lotuta.

3. Enpresa eskatzailearen aitorpena, adierazten duena ez dagoela zigortuta zigor- edota administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukeraz gabetzearekin, eta ez dagoela horretarako desgaitzen duen inolako legezko debekuren pean, barnean hartuta sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak, otsailaren 18ko 4/2005 Legeko (Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa) azken xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoarekin bat.

4. Enpresa egunean dagoela diru-laguntzak itzultzeko betebeharren ordainketan eta diru-laguntzen araudiak eskatutako gainerako betebeharren ordainketan.

5. Laguntza eskaera honetaz gain, erkidegoko zuzentarauek ezarritako minimis (*1) arauaren eraginpeko honako laguntza eta/edo dirulaguntza hauek jaso dituela azken 3 urteetan:

Eskaera urtea	Erakundea/ Organismoa	Programa	Emakida data	Emandako zenbatekoa	Jasotze data	Jasotako zenbatekoa
					GUZTIRA:	

Ezabatu | Errenkada gehitu

(*1) Minimis erregelamenduaren arabera enpresa batek gehienez 200.000 euro jaso ditzake 3 zerga ekitalditan, laguntza eskatu den ekitaldia erreferentziatzat hartuta.

6. Laguntza eskaeraz gain, inbertsio proiektu honetarako eskaera aurkeztu edo lortu du, jarraian aipatzen diren erakunde/ organismo publiko edo pribatuetan, orain arte:

Eskaera urtea	Erakundea/ Organismoa	Programa	Emandako zenbatekoa	Jasotze data	Jasotako zenbatekoa
				GUZTIRA:	

Ezabatu | Errenkada gehitu

Halaber, enpresak hitzematen du, behin agiri hau aurkeztuta edozein unetan, erakunde publiko edo pribatuetan zerga-urte honetan proiektu honetarako eskatu edo eskuratutako laguntza oro berriz jakinaraziko duela.